



Okagoikoa

etxebizitza

Aldacrak: Zubigane Oka
Ahozkoa: Oka / Óka goikúe



43° 11' 37"

2° 34' 13"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Berriz eta Mallabia arteko mugan kokatzen den baserri-errotaren gaineko aipamenik ez dugu aurkitu dokumentazioan. Hala ere, *Oca* (1967, BUA, CE) moduan erregistratuta aurkitzen dugu XX. mende amaierako eraikin-errolan. *Oka erreka*ren uren ondoan kokaturik daudenez, etxe hau zein honen ondoan dagoen *Okabekoa* (**Ikus Okabekoa**) dira erreka izena ematen diotenak. Berriztarren artean, etxe biak *Óka* moduan ezagutu izan dira, nahiz eta bien artean bereizi, honako hau *Óka goikúe* izanik. Egungo jabeek *Zubigane Oka* izenez ezagutzen dela ere adierazi dute, halako aipamenik inon aurkitu ez dugun arren.

Errota izandakoan eraikitako baserri etxea da. XIX. mendean egiten ziren trazan jasoa. Izan ere, isurialde biko teilatuaren babesean etxe luzenka ikusten da, pisu bi eta ganbaraduna. Fatxada nagusiak oso izaera ordenatua du, erdiko ardatzaren arabera antolatua. Atea, erdian, eta leiho bana, aldamenetan. Goian, leiho arruntak, alboetan, eta leiho luzea, erdian. Eta gorengo, berria, balkoi sakona. Egin dioten eraberritzean harria bistaratu diote, baina jatorriz eraikitzeke erabili zuten harlangaitza luzitu eta pintatuta izango zuen, baita leihoetan ere, hauetan zurezko dintela ikusten da eta. Harlandua soil-soilik kantaletan antzematen da.

toponimia

Oka toponimoa oso arrunta da Euskal Herrian eta inguruan. Horrela deitzen dira Gernika eta Mungia zeharkatzen duten ibaiak eta Arabako udalerri bat. Ez dira bakarrak eta Burgos iparraldean, euskararen mugetan Villafranca de Montes de Oca dugu. Badirudi oka hitzak 'arroila' esan nahi zuela eta egia da esangura hori betetzen dela leku askotan. Hala ere Irigoienek ustez kasu batzuetan "baratza" adiera bazuen eta okaran izango zen basaren-en kontrakoa. Kasu honetan izenaren bigarren osagaia okagoi aldekoka dela esaten digu.